Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko apirilaren 27a, astelehena — 77 — Lunes, a 27 de abril de 2020

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*163/2020 Foru Agindua, apirilaren 22koa, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 3ko 137/2020 Foru Agindua, pertsona fisikoei Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga arloko ordezkarien erroldan ordezkaritza berriak inskribatzea ahalbidetzen dien ezohiko sistema bat arautzen duena, Covid-19ak sortutako aparteko egoerak irauten duen bitartean.*

Apirilaren 3ko 137/2020 Foru Aginduaren bidez, araututa gelditu zen pertsona fisikoei Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga arloko ordezkarien erroldan ordezkaritza berriak inskribatzea ahalbidetzen dien ezohiko sistema bat, pertsona fisikoei bakarrik zuzendua, Covid-19ak sortutako aparteko egoerak irauten duen bitartean. Komeni denez sistema hori pertsona juridikoei eta nortasun juridikorik gabeko entitateei zabaltzea, bidezkoa da foru agindu hori aldatzea. Horretarako, sistemaren hartzaileak pertsona fisikoak bakarrik izatea baztertzen da, eta sozietateen gaineko zerga aurkeztera behartutako pertsona juridikoentzat baliagarria den kontraste datu bat sartzen da.

Ezohiko sistema honetan, ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko deklarazioa ezartzen da, ordezkaritza baimentzeko borondatea adieraztearren, ordezkatua aurrez aurre agertu eta triangulazioa egin beharrean. Gainera, ordezkariak ordezkatuaren ezaguna den eta aurretik berari jakinarazi dion datu bat eman beharko du kontraste datu moduan. Halere, pertsona fisikoen eta nortasunik gabeko entitateen motak hainbat direnez, beren zerga betebeharrak ere hainbat dira. Horregatik, zaila da zehaztea ordezkaritza berriak baimentzeko ezohiko sistema beraiei guztiei zabaltzea ahalbidetzen duen kontraste datu homogeneo bat.

Dena den, nahiz eta partzialki izan, komenigarria da zergadunei beren zerga obligazioak betetzea errazten jarraitzea, bai eta sozietateen gaineko zerga aurkeztera behartutako pertsona juridikoei apirilaren 3ko 137/2020 Foru Aginduan jasota dagoen ordezkaritza berriak zerga ordezkarien erroldan inskribatzeko ezohiko sistema zabaltzen segitzea ere. Hori guztia sistema hau gainerako zergadunei zabaltzea ahalbidetzen duten bide berriak aztertzen jarraitzea eragotzi gabe.

Horiek horrela, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoko Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 40. artikuluan eta irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzekoak, 23. artikuluan emandako eskumenen arabera jokatuta, hau

EBAZTEN DUT

*Lehendabizi.* Aldatzea apirilaren 3ko 137/2020 Foru Agindua, pertsona fisikoei Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga arloko ordezkarien erroldan ordezkaritza berriak inskriba-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 163/2020 de 22 de abril, por la que se modifica la Orden Foral 137/2020 de 3 de abril, por la que se regula un sistema extraordinario que permita a las personas físicas inscribir nuevas representaciones en el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas, durante el periodo de tiempo en el que se mantenga la situación excepcional generada por el Covid-19.*

Mediante la Orden Foral 137/2020 de 3 de abril, se reguló un sistema extraordinario para permitir inscribir nuevas representaciones en el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas, durante el periodo de tiempo en el que se mantenga la situación excepcional generada por el Covid-19, pero únicamente destinado a las personas físicas. Resultando conveniente ampliar dicho sistema a las personas jurídicas y a las entidades sin personalidad jurídica, procede modificar la citada Orden Foral eliminando la exclusividad de sus destinatarias e incluyendo un dato de contraste válido para las personas jurídicas con obligación de presentar el impuesto sobre sociedades.

En este sistema extraordinario, se sustituyen la personación física de la representada y la triangulación para manifestar la voluntad de otorgar la representación por una declaración responsable firmada por la representante quien deberá, además, aportar como dato de contraste un dato conocido por la representada que se lo habrá comunicado previamente. Sin embargo, la diversidad de la tipología de las personas jurídicas y las entidades sin personalidad ocasiona que las obligaciones tributarias de las mismas sean, asimismo, diferentes lo cual dificulta determinar un dato de contraste homogéneo que permita extender a todas ellas el sistema extraordinario para otorgar nuevas representaciones.

No obstante, aunque sea parcialmente, resulta conveniente seguir avanzando en la vía de facilitar a los y las contribuyentes el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y extender el sistema extraordinario para inscribir nuevas representaciones en el censo de representación en materia tributaria establecido por la Orden Foral 137/2020, de 3 abril, a las personas jurídicas con obligación de presentar el impuesto sobre sociedades. Todo ello, sin perjuicio de continuar analizando nuevas vías que permitan extender este sistema al resto de contribuyentes.

Por lo expuesto, actuando conforme a las competencias conferidas por el artículo 40 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y el artículo 23 del Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral,

RESUELVO

*Primero.* Modificación de la Orden Foral 137/2020 de 3 de abril, por la que se regula un sistema extraordinario que permita a las personas físicas inscribir nuevas representaciones en el

EK\CV GAO-I-2020-01893

tzea ahalbidetzen dien ezohiko sistema bat arautzen duena, Covid-19ak sortutako aparteko egoerak irauten duen bitartean.

*Bat.* Aldatu egiten da apirilaren 3ko 137/2020 Foru Aginduaren zioen azalpenaren laugarren paragrafoa, eta honela idatzita gelditzen da:

«Egoera hori dela eta, gomendagarria da ezohiko sistema bat ezartzea, Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga arloko ordezkarien erroldan ordezkaritza berriak inskribatu ahal izateko. Ezohiko sistema hori 2020ko uztailaren 29ra bitartean baliagarria izango da.»

*Bi.* Aldatu egiten da apirilaren 3ko 137/2020 Foru Aginduaren lehen puntua, eta honela idatzita gelditzen da:

«Foru agindu honen xedea da Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga arloko ordezkarien erroldan ordezkaritza berriak inskribatzea ahalbidetzen duen ezohiko sistema bat arautzea, Covid-19ak sortutako aparteko egoerak irauten duen bitartean.»

*Hiru.* Aldatu egiten da apirilaren 3ko 137/2020 Foru Aginduaren hirugarren puntuaren 1. apartatuko c) letra, eta honela idatzita gelditzen da:

«c. Aurrez aurreko agerraldiaren eta triangulazioaren sistemen ordez, kontraste datuaren sistema ezartzen da. Zehazki, kontraste datu hauek erabiliko dira:

Pertsona fisikoak: azken lau ekitaldietan Gipuzkoan aurkeztutako azken errenta aitorpenean adierazita dagoen ordaintzeko edo itzultzeko kopuruaren zenbatekoa.

Pertsona juridikoak: entitatearen arabera ondoren adierazten den laukian agertzen den zenbatekoa, betiere, azken lau ekitaldietan Gipuzkoan aurkeztutako azken 200 ereduan jasotakoa:

Estatuko araudiaren menpe dauden entitateak: 550 laukian agertzen den zenbatekoa («Aurreko ekitaldietako zerga oinarri negatiboen konpentsazioaren aurreko zerga oinarria»).

Itsas garraioko enpresen tributazio araubidean dauden itsasotzi konpainiak: 1503 laukian agertzen den zenbatekoa («Zerga oinarria / Oinarri likidagarria»).

Ondare sozietateak: 4238 laukian agertzen den zenbatekoa («Aurreko zerga oinarria»).

Gainerako entitateak: 1504 laukian agertzen den zenbatekoa («Aurreko zerga oinarria»).»

*Bigarren. Indarrean jartzea.*

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2020ko apirilaren 22a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.
(1893)

censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas, durante el periodo de tiempo en el que se mantenga la situación excepcional generada por el Covid-19.

*Uno.* Se modifica el párrafo cuarto de la exposición de motivos de la Orden Foral 137/2020 de 3 de abril, que queda redactado de la siguiente forma:

«Esta situación aconseja arbitrar un sistema extraordinario que permita inscribir nuevas representaciones en el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas. Este sistema extraordinario tendrá validez temporal hasta el día 29 de julio de 2020.»

*Dos.* Se modifica el punto primero de la Orden Foral 137/2020 de 3 de abril, que queda redactado de la siguiente forma:

«La presente Orden Foral tiene por objeto regular un sistema extraordinario que permita inscribir nuevas representaciones en el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas, durante el periodo de tiempo en el que se mantenga la situación excepcional generada por el Covid-19.»

*Tres.* Se modifica la letra c) del apartado 1 del punto tercero de la Orden Foral 137/2020 de 3 de abril, que queda redactado de la siguiente forma:

«c. Se sustituyen los sistemas de personación y triangulación por el dato de contraste. En concreto, se utilizarán estos datos de contraste:

Para las personas físicas, el importe de la cantidad a ingresar o a devolver de la última declaración del impuesto sobre la renta de las personas físicas presentada en Gipuzkoa dentro de los últimos cuatro ejercicios inmediatos.

Para las personas jurídicas, el importe que figure en la casilla que se señala a continuación en función de la entidad, referido, en todo caso, al último modelo 200 presentado en Gipuzkoa dentro de los últimos cuatro ejercicios inmediatos:

Entidades sujetas a la normativa estatal: el importe que figure en la casilla 550 («Base imponible antes de compensación de bases imponibles negativas»).

Entidades navieras en régimen de tributación de las empresas de transporte marítimo: el importe que figure en la casilla 1503 («Base imponible / Base liquidable»).

Sociedades patrimoniales: el importe que figure en la casilla 4238 «Base imponible previa»).

Resto de entidades: el importe que figure en la casilla 1504 («Base Imponible previa»).»

*Segundo. Entrada en vigor.*

La presente Orden Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 22 de abril de 2020.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jabier Larrañaga Garmendia.
(1893)